



GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA PROZEDURA ARRUNTA

Aurretiko oharrak

Txosten honen helburua da 2011ko Aurrekontu Orokorren genero-eraginaren gaineko ebaluazioa egitea eta, horrela, 4/2005 Legearen 19 eta 20. artikuluetan eta generoaren arabera eraginaren ebaluazioa egiteko jarraibideetan xedatutakoa egoki aplikatzea, bai eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2007ko otsailaren 13ko Erabakiaren bidez, onetsitako neurriak hartzea eta, horrela, hobekuntza-proposamenak egitea ere.

Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1. artikuluan honakoa ezarri da: «Araua garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteei modu aktiboan izango dute kontuan emakume eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua».

Aurrekontu Orokorra kontabilitateko agiria da; bertan, administrazioaren urteko ekonomia-plana eta Jaurlaritzaren ekonomia-politikaren lehentasunak jasotzen dira. Tresna bat osatzen dute, eta, horren bidez, ekonomia- eta garapen-helburuak gauzatzen dira. Bertan, Jaurlaritzak egingo dituen gastuak planifikatzen ditu, bai eta horiek egiteko aukera emango dioten diru-sarrerak ere. Euskadiko Aurrekontu Orokorrek egiteko, autonomia-erkidegoko administrazioeko sailek diru-sarrera eta gastuen egoerei buruzko euren aurreproiektuak egiten dituzte aurretiaz, bai eta erakunde autonomoenak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoenak eta bertako sozietate publikoenak ere.

Honakoa dio 4/2005 Legearen finantzaketari buruzko 14. artikulua: *Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan*; alegia, Jaurlaritzak emakume eta gizonen berdintasunerako duen helburua betetzeko. Horrenbestez, Jaurlaritzako sail bakoitzak, bere aurrekontuetan, emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ekonomia-baliabideak izendatzeko neurri egokiak hartu beharko ditu.

Aurten, ebaluazio-txosten hau egiteko, ahalegina egin da 2010. urteko Aurrekontu Orokorren gaineko Legeari buruz Emakundek 2009ko urriaren 21ean emandako erantzun-txostenean aipatzen diren gomendioetakoren bat jarraitzeko. Bertan agerrarazi zen oso zaila dela hain berezia den hau bezalako arau bati buruzko generoaren araberrako eraginaren ebaluazioa egitea, eta Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako ahalegina baloratu zen, sail bakoitzari buruzko informazioa antolatu samar aurkezteko aukera eman duen prozedura eratu zuelako. Prozedura hori aurreko ekitaldian hasi zen, eta horixe erabili da, baita ere, 2011. urteko aurrekontuen gaineko txostena egiteko. Izan ere, errekerimendu ofiziala egin zaie sail guztiei, eredu komun baten bidez¹, eta honakoa eskatu zaio sail bakoitzari: bere sailaren politikak eragiten dituen sektore eta eremu guztietako gizon eta emakume guztien gaur egungo egoeraren deskribapen kuantitatiboa eta kualitatiboa, bai eta aurrekontu-programa bakoitzaren azterketa berezitu ere; azken horretan, sail bakoitzak garatzen dituen programetan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko edota emakumeen diskriminazioari aurre egiteko aurreikusitako helburuak zehaztuko dira.

Emakundek 2009ko urrian egin zuen erantzun-txostenean egindako oharrei dagokienez, Jakin badakigu prozedura hau eta sailei emandako tresna hobetu egin beharko direla etorkizunean, emaitzak, sail bakoitzaren aurrekontuen genero-eragina ebaluatzeko orduan, zehaztasun gehiagoz emateko. Nabarmentzekoa da, era berean, Jaurlaritzaren Kontseiluak “Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdiko Jarraibideak” onetsi zuela 2010eko ekainaren 29an, eta plan horren V. kapituluaren Gobernantzarako bere helburuen artean onartu zuela genero-ikuspegia duten aurrekontuak egitea. Onarpen hori aurrerapena da berez, Emakundek aurreko urteko txostenean aipatu zuen bezala, gai hau nazioartean lehentasunezko hartzen baita berdintasun-politikak garatzean. Hala ere, aurrekontuak ikuspegi horrekin egiteko prozedura sistematizatu oraindik garatu gabe dagoen arren, ezin da jakinarazi aurrekontu-programek zein eragin zehatz izango duten emakume eta gizonengan, sailek berdintasun-politiketan aurrera egiteko neurriak eratu dituzten arren.

Azkenik, nabarmentzekoa da gaur egun berdintasunerako administrazio-unitate guztiak daudela eratuta Eusko Jaurlaritzan.

Jarraian, Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako txostena gauzatzeko laguntza eman duten sailak adierazi ditugu:

¹ Ikusi I. eranskina: Datu-eskaera, 2011ko Aurrekontu Orokorren Legeari buruzko genero-eraginaren baterako txostena prestatzeko

- Lehendakaritza
- Herrizaingo Saila
- Ekonomia eta Ogasun Saila
- Justizia eta Herri Administrazio Saila
- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila
- Industria, Merkataritza eta Turismo Saila
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila
- Osasun eta Kontsumo Saila
- Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- Kultura Saila

1. galdeketa.- Emakume eta gizonen egoerari buruzko proiektuaren deskribapena eta azterketa.

1. – Araudi-proiektuaren mota.

Lege-proiektua

2. – Proiektuaren izena.

Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onesten dituen 2011ko ekitaldirako.

3. – Zein administrazio-organok eman duen.

Jaurlaritzaren Kontseiluak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak proposatuta.

4. – Proiektuaren helburua zehaztea.

Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren onespina eta edukia, 2011. urterako.

5. – Proiektuarekin lotuta dauden beste arau, plan, eta gisako batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legeak honela eratzten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak: “Euskal Autonomia Erkidegoak ekonomia- edo aurrekontu-ekitaldi bakoitzean egin behar duen ekonomia-jardueraren programa baten bidez zuzenduta dago, eta, programa hori osatzen duten erabakiak batu ondoren, adierazpide formala ematen zaie, agiri bidez, bai finantzen aldetik, bai kontabilitatearen aldetik azalduta egoten dena”. Legezko testu horren 5.1. artikulua eta, era berean, “*Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna*” dira. Horrenbestez, jarduera publiko orokorraren diru-sarrerak eta gastuak jasotzeaz gain, aurrekontu-zuzkidura ematen diote indarrean dauden arau eta planen ondoriozko gastuen politiken garapenari. Beraz, jarduera publiko gehienekin zuzeneko harremana dutela ondoriozta daiteke.

6. – Proiektuak eragindako eremuan gizon eta emakumeen gaur egungo egoera adierazi, modu kuantitatiboan eta kualitatiboan.

Proiektuak eragindako eremua oso zabala da; euskal herritar guztiak hartzen ditu. Hala eta guztiz ere, aurreko atalean aipatu bezala, aurrekontu orokorrek jarduera publiko orokorraren diru-sarrerak eta gastuak jasotzen dituzte eta Eusko Jaurlaritzako sail guztiei aurrekontu-zuzkidura ematen diete, sektore-politika publikoak garatzeko. Hori dela eta, Jaurlaritzako Sailei emandako ereduetan, sail bakoitzaren sektore-politikek eragindako eremuetan gizon eta emakumeen egoera zertan den deskribatzeko ahalegina egin dute, gero, beren aurrekontu-programen eraginera hurbildu ahal izateko, emakume eta gizonen baldintza eta jarreretan, esku-hartze publikoko sektoreetan.

7. – Proiektuaren helburu orokorrak azaldu; zenbateraino diren emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Proiektuaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onestea; bertan, ekitaldi zehatz baterako jarduera publiko orokorraren diru-sarrera eta gastuak jasotzen dira.

Oraindik ez da prozedura sistematizaturik antolatu aurrekontuak genero-ikuspegiarekin egiteko, orain dela oso gutxi onetsi zelako Berdintasunerako V. Plana, eta hori agertzen delako Gobernantzarako bere helburuen artean. Hala ere, txosten honi atxikitako eranskinetan ikusten denez, sailek, beren programetan, berdintasunerako politiketan aurrera egiteko helburuak proposatzen dituzte, eta, horrenbestez, nahiz eta, gaur egun, ezin den aurrekontu-programek emakume eta gizonengan duten eraginaren berri eman, sail bakoitzak, pixkanaka-pixkanaka, bere sektore-politika osatzen duten programetan, berdintasuna sustatzeko helburuak barne hartzen ditu edo berdintasuna sustatzen duten ekintzak aurreikusten ditu. Hurrengo taulan, sailen arabera, berdintasuna sustatzeko edota desberdintasunari aurre egiteko helburuak jasotzen dituzten programak labur eman dira. Adierazi beharra dago horietako batzuek argi adierazten dutela berdintasuna sustatzeko edota emakumeen diskriminazioari aurre egiteko direla. Beste kasu batzuetan, nahiz eta helburu horiek dituzten ekintzak esplizituki agertzen ez diren, genero-ikuspegia sartzen da proiektuen ikuspuntuetan. Sailek bidalitako txosten gehienek ez dute lortu ekintza horiek gauzatzeko aurrekontua kalkulatzeko. Hala ere, sailen txosten batzuetan, kopuruetakoa batzuk ikusten dira, berdintasunerako helburuen eta ekintzen kostua gutxi gorabehera jakiteko.



1. taula. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko edota emakumeen diskriminazio-egoerari aurre egiteko helburu eta programen zerrenda, sailen arabera

Saila	Programa	Berdintasuna sustatzeko edota diskriminazio-egoerei aurre egiteko helburuak
LEHENDAKARITZA	1121 EGITURA ETA LAGUNTZA	1. (Berdintasunerako unitatea)
	1311 KANPO-EKINTZA	2. Kanpoko euskal elkarteekiko harremanak zabaltzea, euskal kulturaren adierazpen guztiak mantentzea babestu eta sustatzeko, eta erakunde- eta enpresa-harremanetan laguntza-plataformak izatea sustatzeko.
	3221 EMAKUMEARENTZAKO AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA	3. Emakumeentzako ekintza positiboko politiken garapena sustatu eta horretarako aukera ematea.

HERRIZAINGOA	2211 EGITURA ETA LAGUNTZA		.Arreta osoa ematea genero-indarkeriaren biktimei. .Erakundearen koordinazioa eta lankidetzak. .Genero-indarkeria ikertu, horren gainean sentsibilizatu eta prebenitzea. .Genero-indarkeriaren gainean sentsibilizatu eta prebenitzeko ekintzak. .Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako Berdintasunerako Planean jasota datozen neurriak betetzeko, sustapen-lana eta koordinazio-lana egitea eta saileko gainerako zuzendaritza eta esparruekin eta sailera atxikitako erakunde autonomo, erakunde publiko eta organoekin lankidetzan aritzea.
	2223	ZERBITZUKO	.Legeak garatzea genero-indarkeriaren biktimei dagokienez. .Pertsona eta ondasunak babestea, euren eskubide eta askatasunak askatasunez erabili ahal izango dituztela bermatzea eta herritarren segurtasuna zaintzea erkidegoko lurralde osoan.
	ERTZAINZA		

EKONOMIA OGASUNA. EUSTAT	ETA	6110 EGITURA ETA LAGUNTZA	1. Sailean berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzea eta 4/2005 Legea eta emakume eta gizonen berdintasunerako V. plana gauzatzeko zuzendaritza eta arloekin lankidetzan jardutea.
		5513 ESTATISTIKA OFIZIALEN ERAGIKETAK ETA ARGITALPENAK	.Estatistikaren produkzioa eta estatistikaren zabalkundea eta erabilera sustatzea. 999103 "Emakume eta gizonen arteko berdintasuna" atala Eustaten web gunean.
	ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIAK	3111 EGITURA ETA LAGUNTZA 1312 GARAPEN LANKIDETZA. LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA 3123 GIZARTE-ZERBITZUAK	.Genero-berdintasuna .Ekintzen eragin eta koordinazioa sakontzea .Agentzian genero-unitatea sendotzeko prozesuak erraztea. .Erakunde, organizazio eta ekipo teknikoen koordinazioaren bidez garatuko diren ekintzetan lankidetzari eta

ENPLEGUA ETA GIZARTE GAIAK	3211 ENPLEGUA	koherentziari bide ematea. .Lan-kontratazioa sustatzea .Lehentasunezko arreta duten langabeek sustatutako enpresa-egitura berriak sortzea sustatzea.
	3231 PRESTAKUNTZA	.Oro har, langabezian dauden pertsonen eta aktiboak izan daitezkeen pertsona ez aktiboek lanerako prestakuntza ematea.
	3212 GIZARTE-EKONOMIA	. Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko laguntzak ematea
	3124 FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKA	.Askatasun eta berdintasun errealak eta eraginkorrak sustatzea, afektibitate- eta sexu-aukeren arloan.

OSASUNA ETA KONTSUMOA	3122 IMMIGRAZIOA	.Immigrazioari eta kultura arteko bizikidetzari buruzko prestakuntza, informazio eta sentsibilizazioa
	4111 EGITURA ETA LAGUNTZA	(Berdintasunerako administrazio-unitatea)
	4112 OSASUN FINANTZIAZIO ETA KONTRATAZIOA	5. Ahalduentzeko estrategia integratua garatzea herritarrentzat. *herritar guztientzat, oro har
	4113 OSASUN PUBLIKOA	1. Airearen, uraren eta bestelako ingurumen-faktoreen kalitateari buruzko osasun-kontrola bermatzea 2. Kanpo-inguruneari buruzko eragina duten jarduera eta instalazioen osasun-kontrola bermatzea 3. Elikagaien osasun-egoera bermatzea 4. Euskal herritarren nutrizio-egoera ebaluatzea 5. Gaixotasun kutsakorren eragina murriztea eta arrisku-faktoreak aztertzea 6. Osasun alorreko prestakuntza eta hezkuntza Osasun Publikoko arloetan 7. Tabako-kerik gabeko Euskadi 8. Beste jarduera batzuk 9. EAEko sortzetiko anomalien erregistroa koordinatu eta bultzatzea 10. Osasuna sustatzeari eta prebenitzeari buruzko estrategia integratua 11. Laguntza gaixo kronikoei. Bizi-kalitatea hobetzea
	4114 EZAGUTZAREN GESTIOA ETA OSASUN EBALUAZIOA	*herritar guztientzat, oro har 1. Osasun Plana garatu eta ebaluatzea 2. Osasun Plana eta Kontratu Programak garatzeko lehentasunezko azterlanen plangintza eta kudeaketa egitea. 3. Osasun arloko gai erabakigarriei eta osasun arloko desberdintasunei buruzko ebidentziak hedatzeko programa 4. Osasun eta Kontsumo Saileko berariazko estatistika-organoaren kudeaketa

4115 FARMAZIA

5. Ospitaleko, ospitalez kanpoko eta mediku- eta farmazia-laguntza emateko erakunde libreetako estatistiken kudeaketa
6. Osasun teknologien ebaluaketa – OSTEBA
7. Erregistroen eta osasun-informazioen zerbitzua
8. Osasun arloko zentro, zerbitzu eta establezimenduak baimentzea
9. Erradiodiagnostiko, medikuntza nuklear eta erradioterapiako laguntza-unitateak: babes erradiologikoa
10. Osasun-prestakuntza espezializatuaren plangintza eta kudeaketa egitea
11. Garapen profesionala
12. Etengabeko prestakuntzaren plangintza eta kudeaketa egitea
13. Prestakuntza eta ikerketarako bekak eta laguntzak
14. Osasun arloko ikerketak sustatzea
15. Saileko liburutegia eta artxiboa kudeatzea

*herritar guztientzat, oro har

1. Sendagaien erabileraren kalitatea hobetzea, erantzukizun handiagoa izatea sustatuz
2. Jakintza zientifikoak behar bezala bermatuta dauden eta kostu-onura erlazio onena duten prozedura eta sendagaien erabilera sustatzea sendagaiak agintzen dituztenen artean, sendagaien inguruko etengabeko prestakuntza emanez.
3. Farmazia-sorospenaren antolamenduko legearen aurreproiektua bultzatzea
4. Euskal Autonomi Elkarteko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legean, lege hori garatzen duten xedapenetan eta horri buruz indarrean dauden gainerako araudietan xedatutakoa aplikatu eta betetzen dela zaintzea
5. Farmazia-prestazioak banatzeko lankidetzaren hitzarmena garatzea
6. Osasun-produktuak merkaturatu, banatu eta saltzeko erregistroa betetzea.
7. Farmazia-prestazioa betetzen dela bermatzea

JUSTIZIA HERRI ADMINISTRAZIOA	ETA		*herritar guztientzat, oro har
		4431 KONTSUMOA	1. Komunikazioa eta sentsibilizazioa 2. Informazioa eta arreta 3. Prestakuntza 4. Gatazkak konpontzea 5. Merkatu-kontrola 6. Kontsumo-agenteak sustatu eta koordinatzea 7. Beste erakunde batzuekin egindako lankidetzen eta jokaeren azterketa eta araudi-garapena
		1211 EGITURA ETA LAGUNTZA	*herritar guztientzat, oro har
		1412 JUSTIZIA	.Sailean berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzea, eta 4/2005 Legea eta IX. Legealdiko Berdintasunerako Plana gauzatzeko zuzendaritza eta arloekin lankidetzan jardutea .3.Laguntza eta lankidetzak ematea Justizia Administrazioari, heldien zigor-eremuan, delituen biktimen interes eta eskubideak behar bezala babesteko; gizarte arloko aholkularitza teknikoak ematea epaileei atxilotutako pertsonen dagokienez, eta askatasun-gabetzearen neurri alternatiboak aplikatzeko aukerak hobetzea. 5.Doako laguntza juridikoaren legea aplikatzeko modua erraztea, arreta berezia eskainita EAEn etxeko indarkeriaren edota sexu-erabazpen biktimentzako ofiziozko txanda eta laguntza juridikoaren zerbitzua sendotzeko

ETXE BIZITZA, HERRI LANAK ETA GARRAIOAK	5111 SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA	(Berdintasunerako administrazio-unitatea)
INGURUMENA, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	4420 EGITURA ETA LAGUNTZA.	.Sailaren eraginkortasun eta eragingarritasuna erraztea bere eskumenen eremuan, bai kanpoko harremanen mailan eta bai barruko funtzionamenduaren mailan ere, "sustapen, babes eta koordinazioa berezko sektore-eremuetan emakumearen zeregina sendotzearekin lotutako jardueretan, horretarako onetsi den gizon eta emakumeen arteko Berdintasunerako V. Planean azaldutako jarduerekin eta otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitako neurriekin bat etorrira" izenekoak sartuz azterketa eta plangintza ardatzaren barruan.
	7112 ARRANTZA	. (Berdintasunerako administrazio-unitatea) .Oro har pertsonen eta bereziki emakumeen balorazioa sektorean, kalitatea eta bizi-maila hobetzearen, garatutako lanaren arabera.

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	7211 EGITURA ETA LAGUNTZA	.Berdintasunerako administrazio-unitatea. .Prestakuntza .Informazio-sistemak
	7214 LEHIAKORTASUNAREN ETA LEHIAKORTASUNERAKO LANKIDETZAREN ESTRATEGIA	.Lehiakortasunaren eta lehiakortasunerako lankidetzaren estrategia. .Lehiakortasun estrategia. .Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna .Lankidetzan aritzea enpresekin, lehiakortasun-politikak egokitu, hedatu eta abirazteko. .Gazteak industria-errealitatera hurbiltzea.
	7311 ENERGIA ETA MEATZEEN GARAPENA ETA POLITIKA	Meatzaritzako berrikuntzarako proiektuak eta agregakinen lurpeko ustiapena.

KULTURA	7612	BARRUKO	Merkataritza dinamizatzeko egiturak sendotzea.
	MERKATARITZA		
	4511	EGITURA ETA LAGUNTZA	.Berdintasun-politiken eremuan, sustapena, koordinazioa eta lankidetzak eman nahi da otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta Berdintasunerako Planean aurreikusitako neurriak betetzeko.
	4512	KIROLAK	.Kirola sustatu eta bultzatzea.
	3222	GAZTERIA ETA GIZARTE- EKINTZA	.Gazteentzako programa eta zerbitzuei dagokienez, emakume eta gizon gazteen artean berdintasuna sustatzeko jarduerak garatzean Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin lankidetzan lan egingo dela adierazi da. .Gazteen artean elkarte-mugimenduko partaidetza eta sustapenari dagokionez, berdintasuna sustatzen duten elkarten jarduerak garatzen lagunduko dela azpimarratu da.
	4515	GIZARTE- KOMUNIKABIDEAK	.Emakume eta gizonen berdintasunari laguntzeko kultura sustatzea.

8. – Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburu zehatzak azaldu, hala badagokio.

Ikusi 1. taula. Eusko Jaurlaritzan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuen zerrenda, sailen arabera.

9. – Helburu orokorrak lortzeko aplikatuko diren neurri eta prozedurak adierazi.

Ikusi erantsitako sailen txostenetan jasotako ekintzak

10. – Emakume eta gizonen arteko berdintasun-helburuak lortzeko aplikatuko diren neurri eta prozedurak adierazi.

Ikusi erantsitako sailen txostenetan jasotako ekintzak

11. – Proiektua gauzatzeko aurreikusitako ekonomia-baliabideak adierazi, eta zenbateraino izango diren emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

Ikusi erantsitako sailen txostenetan jasotako zenbatekoak

12. – Proiektua gauzatu ondoren, emakume eta gizonengan izan duen eragina eta berdintasuna lortzeko izan duen eragina aztertzeko aurreikusi diren adierazle eta mekanismoak adierazi.

Ikus adierazle-multzoa erantsitako sailen txostenetan

13. – Proiektua zabaltzeko erabiliko diren bideak adierazi.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Informazioa jartzea erakundearen web gunean (www.euskadi.net)

14. – Proiektua aztertzeke adierazgarriak izan daitezkeen beste kontu batzuk adierazi.

Sail bakoitzak aurrekontu-memoriak aztertu ditu, eta, horietatik, berdintasuna sustatzeko eta diskriminazioari aurre egiteko helburuak laburtu ditu. Hala ere, aurrekontu-memoriek ez dute bide ematen helburu eta ekintzen kostuak laburtzeko; izan ere, aurrekontua programen arabera esleitzen da. Hori dela eta, txosten honek ez ditu berdintasuna sustatzeko ekonomia-baliabideak adierazten. Horrenbestez, beharrezkoa da beste metodologia-mota bat ezartzea, helburu bakoitza betetzeko jardueren eta proiektuen kostua kalkulatzeko.

2. galdeketa. – Generoaren arabera eraginaren aurretiko balorazioa

Aurrekontu Orokorrei buruzko Legearen araudi-proiektuaren izaera kontuan hartuta, proiektuan ez da berdintasuna sustatzeko neurririk jaso. Hala ere, proiektuaren edukiak, diru-sarrerak eta gastu publikoak, nahitaez eskatzen dute aztertzea ea kontzeptu horiek genero-ikuspegia kontuan hartzen ote duten. Hori horrela, ahalegina egin da sailen gastua aztertzeke eta gastu horrek berdintasuna sustatzeko ekintzak eta helburuak zenbateraino jaso dituen ikusteko. Hauek dira emaitza nagusiak:

I. taulan azaldu den bezala, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren datuak falta direla (ez duelako bere txostena bidali), **zuzenean edo zeharka berdintasuna sustatzeko eta diskriminazio-egoerei aurre egiteko helburuak dituzten 34 programa bildu dira 2011rako Aurrekontu Orokorren lege-aurreproiektuan.** Horien artean, “egitura eta laguntza” programak nabarmendu behar dira; horietan, sail bakoitzean berdintasun-politikak sustatu eta koordinatzeko helburuak jaso dira. Helburu horiek berdintasun-unitateak sortuz eta abiaraziz betetzen dira, 4/2005 Legearen 11. artikulua eta Eusko Jaurlaritzako sailetan, organismo autonomoetan eta erakunde publikoetan berdintasun-politikak bultzatu eta koordinatzeko ardura duten unitate administratiboak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuak ezarritakoa betez, unitate horietan sailek eta organismoek eta erakundeek garatutako berdintasun-politikak sustatu eta zabaltzearen.

Eraginaren balorazio orokorra. 3. galdeketa. – Desberdintasunak gutxitu edo desagerrarazteko eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak.

Aurretik adierazi bezala, sailen aurrekontu-memoriek ez dute bide ematen helburu eta ekintzen kostuak laburtzeko; izan ere, aurrekontua programen arabera esleitzen da. Hori dela eta, txosten honek ez ditu berdintasuna sustatzeko ekonomia-baliabideak adierazten. Horrenbestez, beharrezkoa da sailek berdintasuna sustatzeko helburu bakoitza betetzeko jardura eta proiektuen kostua kalkulatu ahal izateko prozedura eta tresna egokiak ezartzea.

Emakundek gomendatutakoari jarraituz, eta sail honek iazko txostenean antzeman zituen beharrianen arabera, zalantzarik gabe beharrezkoa da sailen arteko proiektua prestatzea, Emakunderekin lankidetzan koordinatuta, prozesu-estrategiari bide emateko; hori oinarri hartuta, sail bakoitzean egiten diren gauza guztiek, gastu guztiek, emakumeengan eragina dutelako kontzientzia pizteko —eta eragin hori, sarri askotan, ez dela berbera emakume eta gizonengan—. Eragin berezitu horren kontzientziak sailen sektore-politika berriro planteatzera eraman behar gaitu, zalantzarik gabe, horien helburu eta ekintza guztiek berdintasunerako helburua zeharka, baina modu eraginkor eta errealean, barneratzeko.

Horrenbestez, sailen arteko dinamika horiek sustatuko direla aurreikusi da, Jaurlaritzak 2003an generoa kontuan hartzen duten aurrekontuei eta beste herrialde batzuetako jardunbide egokiei buruz egindako esperientzia pilotua oinarri hartuta, genero-ikuspegia duten aurrekontu-programazioen diseinuan aurrera egin ahal izateko. Horiek abiaburu, programa eta jarduketa horiek emakume eta gizonen bizitzan eta genero-ekitatean duten eragina aztertu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 14a.

Maria Mercedes Fernández Simancas
AURREKONTUEN ZUZENDARIA